



EPPKren agiria

Agiri honen bidez, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) gure senide, lagun eta kideei eta euskal gizarteari adierazten diegu kaleratzean egiten zaizkigun harrerak hurkoen artean eta era pribatu eta diskretuan jaso nahi ditugula aurrerantzean, orokorrean azken hilabeteetan hasia den bidetik jarraituz.

Hainbat eragile eta alderdik bizikidetzaren ordezkariak bilatzen dute arduragebeki. Ez dugu inondik inora polemika antzurik elikatu nahi; arduratsu izateko eta modu eraikitzailean jokatzeko borondatea dugu. Ez dugu amore emango hartutako bidean jarraitzeko orduan; jokabide ezkorrenetan eroso sentitzen direnen aitzakiak gero eta nabarmenago geratzen ari dira euskal jendartearen, beraien eragina itzaltzen joan den heinean batez ere.

Aurten bete dira hamar urte borroka armatua behin betiko alde batera geratu zenetik. Bakea galarazi eta inposizioa betikotu nahi dutenek, baina, aurrerapauso bakoitza blokeatu edo sabotatu nahi izan dute ordutik, mendekua bilatuz eta gatazka desitxuratuko lukeen kontakizun iruzurtia inposatu gogoz. Garaile eta garaituen errelatoa elikatuz.

Badira, harago, ongi etorri publikoen harira samina sentitu dutela zintzoki azaldu duten pertsonak. Gure iraganeko militantzian egindako ekintzen ondorioz kaltetutako pertsonak dira eta minduta sentitu daitezkeela ulertzen dugu. Urte luzez eta baldintza ezin gogorragoetan kartzelan egon den presoak kalera irtetean hurkoen besarkada jasotzeko eskubidea duela onartu arren, harrera-ekitaldi publikoek mina eragiten dietela adierazi dute. Argi esaten dugu gure gogoak dela sufrimendu oro arintzea eta aukera berriak zabaltzea, zauriak sendabidean jartzea eta euskal herritarren artean elkarbizitza sendotzea.

Beraz, espainiar eta frantziar Estatuetakoko espetxeetan dauden gure kideen artean kontsulta egin ondoren, EPPK-k, lehendik abiatutako beste urrats eta hartutako erabaki batzuei jarraipena emanez, egoki irizten dio aske geratzearen gure poza espetxe atarian zain ditugunekin elkartzean edota era diskretuan hartzen gaituztenekin partekatzea. Aurrerantzean, harrerak soilik hurkoen giroko esparru pribatuan jaso nahi ditugu.

Erabaki hau Euskal preso politikook bizikidetzari, bakeari eta gurea eta gure senideena ez ezik besteen sufrimendua ere aitortzeari egiten diogun ekarpen indibidual eta kolektiboa da.

Azken urteotan egindako urratsek hortzi-muga argia izan dute aurreko zikloa gainditzeko bidean. Gure nahia hori dela adierazten diegu ezkerreko militante independentistei; haiekin batera goaz geu ere, etorkizuneko erronkari helduz, Euskal Herriaren askapen prozesuan bide eta aukera berriak irekitzera. Bakea eta askatasuna lortu eta maila berean ezarri arte.

Batasuna, elkartasuna eta herriarenganako lotura! Jo eta ke, irabazi arte!

Euskal Herria bihotzean, 2021eko azaroan
EPPK
Euskal Preso Politikoen Kolektiboa

**EUSKAL PRESOAK ETA IHESLARIAK ETXERA!
AMNISTIA!
INDEPENDENTZIA!**